

1.IBARREKO GATAZKA (13. orr)

Bi herri kolkoziarreko biztanleak, adineko qizon-emazteak: gehienak, baina soldadu batzu ere, bilduak dira borobilean, ardoa hurrupa eta pipan, kaukaziako herri bonbardeatu baten hondamendiaren erdian. Haien artean, hiri-naqusiik: etorria, Berrekitzearen Estatu Batzordeko berezilaria.

LABORARISA: *(Ezkerretarik bazterrak erakutsiz)* Hantxetako muinoetan hiru tanke nazi geldi arazi ditugu, baina sagartze ondo jada errautsia zen.

ADINEKO LABORARIA: *(Eskuinetik)* Gure etxalde ederra: zer desmasiak!

TRAKTORE GIDATZAILE GAZTEA: *(Ezkerretik)* Lagunak, nik diet sua eman.

Isiltasun une bat.

BEREZILARIA: Orain prozedura entzun ezazue: Galinsk ahuntz-hazle kolkozeko ordezkariak Nukhara helduak dira. Kolkoza honek ekialderatago eroanak zituen bere artaldeak, botereen ordenez, Hitlerren tropak aitzinatzen zirela. Berriz ere aran hone tan kokatzea pentsatzen duo Hango ordezkariak herria eta inguruak aztertu dituzte eta suntsiketa mailaz ohartu dira. *(Ordezkariek: eskuinean buruaz baieztan dute)* Auzoko Rosa Luxembourg kolkozakoek *(eskuinera)*, frutu ekoizleak hauek, proposatzen dute Galinskeko belardi ohiak, belarra zuhur dela egia erran, berreraikitze garaian, frutu eta mahasti landatzeko erabil daitezen. Berreraikitze Batzordearen berezilari gisa, nik neuk eskatzen dut bi herriei, bat jartzea eta beraiek erabakitzea ea Galinskekoek honara etortzerik duten ala ez.

ZAHARRA: *(Eskuinean)* Beste behin nahi nuke ele denboraren rnurritzeta arbitrarioa salatu. Guk, Galinskeko kolkozakook, hiru egun eta hiru gau eraman ditugu honaratzeko, eta orain erraten diguzue solasaldiak egun erdia baino ez duela iraun behar.

SOLDADU ZAURITUA: *(Ezkerrean)* Lagunak, ez dugu gehiago lehen bezainbeste herri, be so zainart eta astirik.

TRAKTORE GIDATZAILE GAZTEA: Ausagailuek murriztz behar dute: tabakoa, ardoa eta solas-aroa nola ez.

ZAHARRA: *(Eskuinean hasperenka)* Fazistak zulora! Noan harira eta azal diezazuedan zergatik nahi dugun gure arana berreskuratu. Arrazoiak anitz dira, baina soilenetik has nadila. Makinee Abakidzee, atera ezazu ahuntz-gasna, *(Eskuinean, laborarisa batek zare handi batetik oihalean troxatu animaleko gasna jalgitzen duo*

Txaloak eta irriak) Tira ezazue, lagunak, tira lasai. ADINEKO LABORARIA: (*Ezkerrean, hotz*) Guregan eragiteko dea?

ZAHARRA: (*Eskuinean, aiqara artean*) ola daiteke zuregan eragiteko Sourab, zu araneke ohoinik trebeena? Badakigu gasna hartuko duzula eta ber aldi arana ere bai (*Irriak*) Zutarik nahi dud an gauza bakarra erantzun argi bat da. Ona ote zaizu gasna hori?

ZAHARRA: (*Ezkerrean*) Bai, noski.

ZAHARRA: (*Eskuinean*) Hara (*Karats*) Jakin beharko nuen gasna kontuetan ez zarela hain trebe.

ZAHARRA: (*Ezkerrean*) Zergatik? Ona kausitzen dudala erraten badizut.

ZAHARRA: (*Eskuinean*) Ez zaizulako ona gizona! Ez baita Ie hen zen bezalakoa. Zergatik ez da hala? Gure ahuntzek ez dutelako oraiko belarra lehenagokoa bezain ona harrapatzen. Gasna ez da gasna, belarra ez delako belarra, hara egia. Idatz ezazu hori otoi prozeduran.

ZAHARRA: (*Ezkerrean*) Baina zuen gasna hauta da.

ZAHARRA: (*Eskuinean*) Ez da hauta jauna, doi baizik. Alhagia berriek ez dute balio. Gazteak aritzen ahal dira hau eta hura. Erraten dizuet, ez gara han ego ten ahal. Goiz-urratzeak berak han ez dira egiazko goiz-urratze usainekoak.

Irriz lehertzen dim zenbait.

BEREZILARIA: Ez zaitela kexa, irri egiten baldin badute, halarik ere entelegatzen zaituztete. Lagunak, zergatik maitatzen du batek bere herria? Hara arrazoa: ogiak gustu hobea du, zerua gorago da, airea gozoago da, ahotsak ozenago dira, lurra ibilgarriago. Ez dea hala?

ZAHARRA: (*Eskuinean*) Aran hau betidanik gurea izan da.

SOLDADUA: Zer da "betidanik"? Deus ez da betidanik inorena. Zuhaur, gazte zinenean, ez zinen zurea, Kazbeki printzeena baino.

ZAHARRA: (*Eskuinean*) Legearen arabera, ibarra gurea da.

TRAKTORE GIDATZAILE GAZTEA: Dena den legeak ikertzeoak dira, egokiak direa oraino?

ZAHARRA: (*Eskuinean*) Ulergarria da. Garrantzi gabea al da zein arbola mota dagoen sortu garen etxetik hurbil? Edo zein auzo: garrantzi

gabea da? Itzuli nahi dugu, zuek arantako ebasleak gure kolkozaren ondoan bazaituztegu ere. Orain irri ukaldi on bat egizue.

ZAHARRA: (*Ezkerrean karkazaiika*) Orduan, zergatik ez duzu lasaiki Kato Wachtan agronoma zure "auzoak" aranz diona behatzen?

LABORARISA: (*Eskuinean*) Gure aranz errateko dugun guztia ez dugu errana oraino. Etxeak oro ez dira suntsituak, etxaldeen oinarriak bederen hor dira.

BEREZILARIA: Badakizue, han edo hemen, estatuaren laguntza zor zaizuela.

LABORARISA (*Eskuinean*) Berezilari laguna, hemen ez gara merkatuan.

Ez dizut txapela hartzen ahal "hau egokiago da" ahoskatuz. Bestea hobea da menturaz, baina zurea duzu hobea kausitzen.

TRAKTORE GIDATZAJLE GAZTEA: Lurrarekin ez da txapela batekin bezala, laguna, ez gure herrian behintzat.

BEREZILARIA: Ez kexa arren. Lurra lurra da, tresna antzera kontsideratzea komeni zaigu, lur propio batekiko atxikimenduaren estimatzea komeni zaigun eran. Solasaldia jarraiki aitzin, Galinsk kolkozako lagunei zalantzan den aranz zer egingo duzuen esplikatzea proposatzen dizuet.

ZAHARRA.: (*Eskuinean*) Bai.

ZAHARRA.: (*Ezkerrean*) Mintza bedi Kato!

BEREZILARIA: Agronoma kamarada!

AGRONOMA: (*Ezkerrean, zutitzen da; Jantzi militarra dakar*) Lagunak, iragan neguan, muinoetan borrokatzen ginenean, eztabaidatu dugu, ale" manak haizatu ondoan, gure frutatze alorrak hamarrez biderkatuz zein moldez berriz antolatuko genituen. Urtatze plan bat asmatu dut. Gure mendiko aintzirari esker, hiru ehun hektareko eremu hutsa urrezta daitezke. Orduan, gure kolkozak, ez bakarrik frutuak, bai eta ere ardoa ekoitz litzake. Baina gure proiektuak ez luke balio, zalantzan dugun Galinskeko arana hartzen balitz baizik. Hara kalkuluak.

Berezilariari txosten bat luzatzen dio.

ZAHARRA: (*Eskuinean*) Prozeduran idatz ezazu gure kolkozak zaldi-hazteko duen asmoa.

TRAKTORE GIDATZAILE GAZTEA: Lagunak, mendian gordetzera behartuak

ginen gau eta egunetan montatu dugu proiektu hau, ez genu en orduen gure fusilen bazkarik ere. Arkatz baten harrapatzea zaila zen.

Txaloak bi aldeetarik.

ZAHARRA: *(Eskuinean)* Gure eskerrak Rosa Luxembourg kolkozako kidei eta herria zaindu duten guztiei.

Bostekoak nahas eta elkar besarkatzen dira.

LABORARISA: *(Ezkerrean)* Maiakovski poetak zioen bezala: "sobietar populuaren herriak arrazoinarena ere izan behar du."

Eskuin aldeko ordezkariak bermatu dira, salbu zaharra, eta agronomaren marrazkiak aztertzen dituzte, berezilariarekin. Harridura keinuak aditzen dira: "Nolaz bada jautziaren goratasuna hogeita bi metrokoa?" - "Hemen, harria eroriko da!" - "Funtsean zementoa eta dinamita aski dute!" - "Ura honaraino ekar arazteko abilak dira!"

LANGILE GAZTEA: *(Eskuinean, eskuineko zaharrari)* So egizu Alleko, muino arteko pentzeak oro ureztatuko dituzte.

ZAHARRA: *(Eskuinean)* Ez diot so eginen. Banekien proiektua egokia zatekeela. Nehork ez nau pistola papoan pausatuz bortxatuko.

SOLDADUA: *(Ezkerrean)* Arkatza baizik ez dizute papoan pausatu nahi.

Irriak:

ZAHARRA: *(Eskuinean, zutitzen da, hits, marrazkieri ikustera joateko)* Aran ebasle horiek ongi badakite bai herri honetan makinei eta proiektuei ihardokitzen ez dakigula.

LABORARISA: *(Eskuinean)* Alleko Berechvili, proiektu berriei dagokienez, zu zarela ikaragarriena ezaguna da.

BEREZILARIA: Eta ene prozedura zertan da? Idatz dezaket zuen kolkozan proiektu horren egiaztatzeke aranaren eskutik uztea gomendatzen duzuela.

LABORARISA: *(Eskuinean)* Nik gomendatuko dut, eta zuk Alleko?

ZAHARRA: *(Eskuinean, marrazkiei beha)* Marrazki horien ale batzuk gurekin eroateko baimena eman diezaguzun proposatuko nuke.

LABORARISA: *(Eskuinean)* Jartzen ahal gara beraz. Marrazkiak bere eta

eztabaidan ari den ber, afera konpondua bezala da. Ezagutzen dut. Berdin ari da gureetako besteekin.

Ordezkariak irriz elkarri besarka.

ZAHARRA: (*Ezkerrean*) Biba Galinsk kolkoza, eta zorionak zuen zaldihazkuntza berriari!

LABORARISA: (*Ezkerrean*) Lagunak, berezialariaren eta Galinsk kolkozako ordezkariaren etortzearen ospatzeko, gure arazoaz ari den antzerki baten eskaintzea asmatu dugu, Arkadi Tscheidsee kantariaren laguntzarekin.

Txaloak, traktore-gidari gaztea kantariaren bila Joan da.

LABORARISA: (*Eskuinean*) Lagunak, aran batez ordaintzen dizuegun antzerkiak ona izan beharko du alajainkoa.

LABORARISA: (*Ezkerrean*) Arkadi Tscheidseek hogeita bat mila bertso gogoz dakizki.

ZAHARRA: (*Ezkerrean*) Antzerkia landu dugu harekin. Ez da errez haren gure artean ukaitea. Zuk, lagun, Plangintzaren Batzordean behar zenuke indar egin kantari hau iparrean ardurago entzun dezagun.

BEREZILARIA: Egia erran, arazo ekonomikoetaz axolatzen gara gu.

ZAHARRA: (*Ezkerrean, farrez*) Ordenajartzen duzu mahastien eta traktoreen banaketa berrian, zergatik ez kantuetan?

Traktore gidari gaztearen gibeletik, Arkadi Tscheidsee kantaria agerczen da eta gizon azkar bezain ximplea jende-borobilean sartzen da.

Beren tresnekin musikariak ondotik ditu. Eskuak joz agurtzen dim artistak.

TRAKTORE-GIDARI GAZTEA: Arkadi, hara berezilari kamarada.

Kantariak ikus-eritzuleak: agurtzen ditu.

LABORARISA: (*Eskuinean*) Pozten naiz zure ezagutzeaz. Eskolanjada zure kantuak aipatzen genituen.

KANTARIA: Aldion, kantuekiko antzerki bat da eta kasik kolkozako kide guztiak ari dira. Ohiturazko maskarak ekarri ditugu.

:ZAHARRA: (*Eskuinean*) Leienda zaharretarik bat izanen da?

KANTARIA: Izugarri zaharra. *Kreazko Borobila* deitzen da eta txinatarrengandik jaso dugu. Aldaketa txikiz horniturik eskainiko dizuegu, bistan dena. Youra, maskak erakuts itzazu. Guretzat ohore bat da, kamaradak, eraman duzuen eztabaida gogorretik landa zuen ausatzea. Gure ustez, traktore sobietarren maldan poeta zaharraren ahotsaren oiharra ona kausituko duzue. Huts bat da, ardo ezberdinen nahastea, baina ez atzoko eta gaurko zuhurtziak hain ederki ezkontzen direnean. Agian ipuina hasi aurretik jatera emango diguzue. Lagungarri daiteke.

AHOTSAK: Bai noski. -Zatozte denak batzokira.

Jatera doatzi denak animatuak. Doazela, berezilaria kantariarengana inguratzen da.

BEREZILARIA: Arkadi, zenbat denbora iraunen du istorioak? Tiflisen beharra naiz sarri.

KANTARIA: (*Zeharka*) Egiaz, bi istorio dira. Oren zenbait.

BEREZILARIA: (*Ahapez*) Laburrago ez zenezake?

KANTARIA: Ez.

3. IPARRALDEKO MENDIETARA (34. orr.)

KANTARIA: Groucha Vachnadzée hura hiritik kanpora
Georgiako bidera atera zenean
Kantari bazebilen, mendiz iparrera
Eta erosten zuen esnea nasaiki.

Groucha Vachnadzee ibiltzen da, haurra bizkar-zakuan, esku batean puskak: eta bestean makil handi bat datxizkala.

GROUCHA: (*kantuz*) Iranera joan ziren Lau gerla izar handi.
Ez da gerlan lehena Bigarrenak ez du ez
Ezertxo irabazten Hirugarrenak aldiz
Aro txarregi dauka Azkenak soldaduak
Nagiegi ditu.
Debalde dira gerlan
Lau gerla izar-handi. Sosso Robakidzee bat
Iranera joan da.
Guda gogorra egin
Zuen aroa alde
Irabazi beharrez
Soldadu ausartekin.
Sosso Robakidzee hau Gure gizona baita.

Laborari borda bat agertzen da.

GROUCHA: (*Haurrari*) Jendeak bazkariten daude eguerditan. Orduan, hor belarrean jarririk igurikatuko duzu Groucha gaizoak esne xorta bat atzeman artean. (*Haurra lurrean ttotto arazten du eta bordako ateajotzen du; laborari zahar batek irekitzen dio*) Attatta, esne pinta bat eta artozko talo bat ukan dezaketa?

ZAHARRA: Esnea? Ez dugu esnerik. Hiritik etorri soldaduek ahuntzak eroan dizkigute. Esnea nahi baldin baduzu zoaz soldaduengana.

GROUCHA: Baina attatta, esne pinta bat haurrarentzat, hortarik baduzu oraino ez?

ZAHARRA: "Zerua saritzat" soil baten truke?

GROUCHA: Nork aipatu du "zerua saritzat"? (*Moltsa jalgitzen du*) Hemen printzeen etxeetan nola sosez ordaintzen da. Burua lainoetan, ipurdia uretan! (*Murmuzikan, zaharra esneka doa*) Eta zenbat duzu pinta?

ZAHARRA: Hiru piastra. Esnea goititu da.

GROUCHA: Hiru piastra? Xorta bakarrarentzat? (*Zaharrak; hitzik qabe, atea aurpegira hersten dio*) Bazauzu Mikel? Hiru piastra? Ez da guretzat. (*Itzultzen da, jartzen eta haurrari bularra ematen dio*) Horrela entseiatuko gara behingoz. Murtxa ezazu, hiru piastak gogoan. Agorra naiz, baina egoxten ari zarela pentsa ezazu, ez da gutxi. (*Burna altxatuz, ohartzen da haurra ez dela gehiago bularrean. Zuitzen da, bordaratzten eta berriz atean jotzen du*) Attatta, ireki, ordainduko dut behar dena! (*Ahapez*) Leher egin bazeneza. (*Zaharrak borta zabaltzen duela*) Uste nuen piastra erdi bat aski zela, baina haurrak zerbait behar duo Piastra bat, nahikoa?

ZAHARRA: Bi.

GROUCHA: Ez itxi atea otoi. (*Moltsa luzaz miazkatzen du*) Hara bi. Bide luzea dugu egiteko eta esneak ona beharko duo Jendeen urkatzea bekatua da.

ZAHARRA: Esne lehia baldin baduzu hil itzazu soldaduak.

GROUCHA: (*Haurra edan araziz*) Plazer garestia da. Irents ezazu Mikel, aste erdiko ene izerdia. Hemengotarrei izterrez-izter dirua irabazi dugula iruditzen zaie. Mikel, Mikel, ez dakizu nolako zama zaren niretzat! (*Haurra troxatzen duen urrez apaindutako zetazko aterkiari beha*) Mila piastra balio dituen aterkia ba eta esnearentzat, deus ere ez. (*Atzera begiratzen du*) Adibidez, aberatsez bete karro haren gainera hupatu beharko genuke.

Karabana-eaie baten aurrean. Urrez apaindutako zetazko artekiak bezhaurra besoetan Groucha ikusten da, bi emazte panpoxengana hurbiltzen.

GROUCHA: Andere hauek ere gaua hemen pasatzeko xedea dukete ez?

Ikaragarri da ohartzea nola guztia betea den eta ezin den laguntzarik harrapa. Ene karro-gidaria itzuli da, sinpleki. Legoa erdi batez ibili naiz oinez. Oinutsik! Ene Persiako ozkiak... badakizue, aztal luzeekin! Zergatik ez dator inor?

EMAZTEETAN ADINDUENA: Hostalerraren aiduru gaude. Hiri-riagusian gertatu nahasmenduetarik landa, ez da nehon gehiago manera egokirik.

Hostalerra, bizar luzearekiko gizon zahar eta duina, ateratzen da mutila gibeletik duela.

HOSTALERRA: Andereak, gizon zahar ba zuen . en raz aliatzea barka iezaiozue. Arto-landen haraindiko malda hanan semea . . mertxikatzea lili erakusten zidan. Frutatzeak landatzen ditu . han, gerezi ondo batzu. Sartalderatako (*erakusten du*) lurra harrizua bilakatzen da eta laborariek ardiak hara daroatzate. Mertxikatzeak nola lili diren miretsi beharko zenukete, dena arrosa kolore xotil.

EMAZTEETAN ADINDUENA: Eskualde emankorra duzue.

HOSTALERRA: Jainkoak benedikatua. Eta, andereak, zertan dago arbolen lilitzea hegoratago? Hegotik etortzen zarete menturaz?

EMAZTEETAN GAZTEENA: Erran beharra daukat ez naizela bazterrei finki so egona.

HOSTALERRA: (*Ongi ikasi plantan*) Badakit, errausagatik. Gure bidehandian, non ez zaren presatua, hobe da emeki ibiltzea.

EMAZTEETAN ADINDUENA: Maitea, ezar ezazu oihala lepo inguruan. Irudi luke hemen arratseko haizeak fresko direla.

HOSTALERRA: Janga-Tau izoztegitik datozkigu.

GROUCHA: Beldur naiz ene semea hoztuko dela.

EMAZTEETAN ADINDUENA: Karabana-sail handia duzu! Sartzen bagina?

HOSTALERRA: O, andere horiek gela zabalak nahi dituzte ala? Zorigaitzez karabana-saila mukuru dago eta sehiak ihes joan zaizkigu. Pena dut, baina ezin du nehor gehiago har, gomendio-hitzak lituzkeen arren ...

EMAZTEETAN GAZTEENA: Baina ez dugu gaua kanpoko bide likits honetan pasatzen ahal.

EMAZTEETAN ADINDUENA: (*Idor*) Zenbat?

HOSTALERRA: Andereak, erraz konprenituko duzue, hainbeste jende ihes dabilan gaurko garaian, segur aski denak onak baina botereen begiko ez direnak, kontuz ibili behar dela etxearen fama zaintzeko. Horregatik. ..

EMAZTEETAN ADINDUENA: Jauna, ez gara iheslariak. Mendietako gure

Udako egoitzera bidean gara, bakar-bakarrik. Ez bagina premian... ez genezake sekula aterberik eska.

HOSTALERRA: (Buruaz *baiestuz*) Pentsatzen du ezetz. Nago libre dagoen gela txikia andere hauen gustuko izango denez. Hirurogei piastra jendeka. Andere hauek elkarrekin al dira?

GROUCHA: Molde batez bai. Nik ere gaueko aterbea bilatzen dut.

EMAZTEETAN GAZTEENA: Hirurogei piastra? Jendeen moztea da hori.

HOSTALERRA: (*Hotz*) Andereak, jendeak ez ditut moztuko, halaz ...

EMAZTEETAN ADINDUENA: Moztea aipatzea ere? Arren zatoz.

Sartzen da mutila ondotik duela.

EMAZTEETAN GAZTEENA: (*Etsitua*) Ehun eta larrogei piastra gela txarpil batentzat! (*Grouchari*) Haurrarekin ezin da! Oihuka hasten baldin bada zer gertatuko da?

HOSTALERRA: Gelak ehun eta larrogei piastra balio ditu, bi edo hiru jendeentzat.

EMAZTEETAN GAZTEENA: (*Doinua aldatuz Grouchari*) Gero, ez nuke jasanen gaua kanpoan pasatzen duzula jakitea. Zatoz otoi.

Earabana-saileori sartzeri dira. Taularen beste aldetik mutila agertzen da, puska zenbaitekin gibeletik datorrela. Haren atzetik, emazteetan adinduena, bigarrena gero eta Groucha haurrarekin.

EMAZTEETAN GAZTEENA: Ehun eta larrogei piastra! Igor etxera ekarri zidaten egunaz geroztik, nehoiz ez naiz hain nahasia sentitu.

EMAZTEETAN ZAHARRENA: Igor aipatzea ere?

EMAZTEETAN GAZTEENA: Egia erran, lau gara, haurra ere norbait da ez? (*Grouchari*) Gastu erdia ez zenuke zuregain hartzen ahal?

GROUCHA: Ezin dut. Begira, puskak tarrapatata bildu izan behar ditut, eta guda-mutilak ahantzi du eni sos aski ematea.

EMAZTEETAN ZAHARRENA: Hirurogei piastrarik ere ez duzu?

GROUCHA: Ordainduko dut .

EMAZTEETAN GAZTEENA: Non dira oheak?